

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Mungiako Udala**

Indarrean dagoan aurrekontu ekitaldiaren barruan, kultur erakundeek urteko kultura ekintzak burutzeko Mungiako Udalak emongo dituan diru-laguntzak arautzeko deialdia (2022). BDNS (Identif.): 660822.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/660822>).

Bat. – Helburua

Mungian, honako jarduera honeek sustatzea:

1. Euskalduntzeko zein euskal kultura (betiko jaiak eta euskal tradizioak) zabaltzeko egitarauak.
2. Honako honeekaz lotuta dagozan jarduerak: musika, antzerkia, dantza, artea, literatura eta euskal hizkuntza; bertsolaritza, historia, zinea, ikus-entzunezkoak eta komunikazioak.
3. Gure udalerriko historia edota kulturaren inguruko azterlanak egitea eta argitaratzea.
4. Ume eta gazteentzat prestatutako aisialdi egitarau hezitzaileak.
5. Animazio soziokulturaleko eta garapen komunitarioa indartzeko programak, batez bere ume eta gazteentzakoak.
6. Kultura-ondarea.
7. Herri tradizioak indarbarritzeko eta zabaltzeko proposamenak.
8. Kultura arloko beste jarduera batzuk.

Bi. – Onuradunak

1. Aurreko atalean aitatutako edozein jarduera Mungian burutu gura dauen edozein alk artek eskatu ahal izango dau dirulaguntza.
2. Proposatutako egitarauak burutzeko lehentasuna emongo jako Mungiari, edo behintzat, udalerrri honen garapen soziokulturalerako interesgarriak izan beharko dabe proiektuok.
3. Dirulaguntza jasoten daben alkarte guztiek laguntza emoten dauen erakundearen logoa jarri beharko dabe beti agirian antolatzen dabezan jarduera guztietan.
4. Alkarteek eta erakundeek irabazi asmo bakoak izan beharko dabe. Eusko Jaur-laritzako Alkateen Erregistroan eta Mungiako Udalekoan izena emonda egon beharko dabe.
5. Alkarteek aurkezten dabezan programa edota jarduerak Mungiako Udalaren urteko kultura programen barruan txertatu behar dira, beraz, aldeztatik adostu beharko dira programak erakunde horregaz, indarrean dagoan aurrekontu ekitaldiaren barruan udalerrian eskainiko diran kultura programa guztien arteko koordinazio egokia lortzeko.

Hiru. – Zenbatekoa

Guztira 10.500 euro bideratuko dira 2022ko udal-aurrekontuko 43.33404.48101 partidaren kontura.

Lau

Eskabideak aurkezteko epea 10egun baliodunekoa da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratueta hurrengo egunean hasita.



Bost.— Oinarriak

Deialdi honetan daude.

Mungian, 2022ko azaroaren 17an.—Kultura eta Euskera Arloko Zinegotzi Arduraduna, Elizabeth Bilbao Arruti